


TRANSIZIOKO HARAN GARAIAK ETA MENDIAK

ARABA



A•19 Bovedako mendilerroa

Bobedako mendilerroko eta Carria Haitzeko gainak Bobedako haranaren eta Valderejoko Parke Naturalaren arteko muga naturala dira. Erliebe malkartsuko gaindegi batek mendilerro honi buru eman eta Carriako Haitz arrokatsu izugarria eratzen du. Bertako amildegi ikaragarrietan harkaitzetako hegaztiak egiten dute habia eta Omecillo ibaian, haraneko ibai-ardatzean, bat egiten duten erreka ugariak zeharkatzen dituzte Haitzeko sakan handiak.

Kareharrizko haizpitarteen ondoren basoak datoz: gizakiaren esku-hartzeak pinu gorri autoktonoaren garapena ahalbidetu du; zuhaitz-mota horrek hostozabalek (pagadiak, erkameztiak, artadiak) baino etekin handiagoa ematen dute basoan. Halere, hostozabalen baso batzuk kontserbatzen dira tarteka larre-eremuen artean. Horien adibide on bat dugu Quintanillako erkamezti-artadi larretua, ehun urtetik gorako ale bikainak biltzen dituena. Haran-hondoko landa-guneetan nekazaritza-laboretako eremuak daude.



A•20 Tuyoko mendilerroa

Tuyoko mendilerroa Gasteizko mendien mendebaldeko jarraipen naturala da. Altuera txikiko mendi-kate batek osatzen du eta bertako tontor altuena San Vitores (892 m.) da. Mendilerroak harkaitz-lerro txiki bat mugatzen duten baso naturalez beteriko eremu handi bat hartzen du; harkaitz horietatik handik hurbil dauden Badaia, Turiso eta Arkamoko mendilerroen eta inguruko nekazaritza-laboreen ikuspegi zabalaz goza daiteke.

Mendi hauetan ura eta larreak eskasak direnez, zaila da abeltzaintzarako aprobetxatzea eta, ondorioz, inguruko erabilera nagusiak baso-ustiapenetara eta pinudi batzuetara mugatzen dira.

Enklabe honetako faunaren bereizgarri nagusia bertako hegazti harraparien populazioak dira: hontz handiak, sai zuriak, belatz handiak, arrano sugezaleak eta arrano txikiak gune hori aukeratzen dute ehizan aritzeko.

A•21 Raso mendia— —Angostoko haizpitartea

Raso menditik, Arkamo eta Arcenako mendilerroen artean kokaturik dagoen mendi-eremutik, Gaubeako harana ikusten da, nekazaritza- eta basozaintza-ekonomian oinarritutako zenbait landagune dituen mendi-nekazaritzako eremu tipikoa. Esparru honetako elementu orografiko erabakigarriena maldan ebakitako erliebea da. Horrek

sakana estu oso ederrak sortzen ditu; esate baterako, Angostoko haizpitartea eta San Martingo sakana.

Lurraldea ia guztiz estaltzen duten pinu gorrien eta hostozabalen baso handiak eta mendian bizi den era askotako fauna dira eremu honek dituen beste elementu erakargarri batzuk. Bisitari ugari izaten ditu, batez ere Angostoko Santutegi simbolikoaren inguruan. Horren ondoan dago gaur egun Arbola Bereiziaren kategoriarekin babestutako Zin Egiteko Artea, Gaubeako Zaldunek Batzarrak egiteko aukeratu zuten tokia.